

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

MIRAKRUZ 10 A



Egilea eta data: Francisco Urcola; 1914

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko bost goi oin (5.a atzeraemana eta hormigoizko pergola bat erantsi zaio) eta beheko oinarekiko 1933ko jasodura atzeraeman bat dituena. Fatxada harlandua (xaflatu laua behe oinean), eskuinaldeko baoaren aurrean hormigoizko begiratokia duena. Bao hirukoitzak ditu jatorriz behe oinean. Proiektu komuna Iparragirre 3 eta 5, Mirakruz 10, 10B eta 10C eta Iztueta 3, 5, 7 eta 9 zenbakiekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokitu dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.